

6. KANALAK

- Zein kanalen bidez iritsiko gara bezeroarengana?
- Zeintzuk dira errentagarri edo erangikorrenak?

Gaur egun, sare sozialak eta interneta denbora guztian eta edozertarako erabiliak dira eta plataforma hauetako informazioa, gehienetan gazteengan erortzen delarik, hau erabiliaz, gure enpresa sustatzea gustatuko litzaiguke.

Horrela, gazteek erabiltzen dituzten sare sozial edo platafoma digital erabilienetan kontuak sortu eta hauetan informazioa txertatuko dugu: Gizarteak duen janari falta eta honek dakarkion osasun ezari buruz, nola lagundu dezaketen gazte bezala, JJ enpresari buruzko informazioa: ideiak, baloreak, gure ofizinak nun kokatuak egongo diren, etab.

TikTok, Instagram, Facebook, Twiter, Pinterest gaur egun plataforma digitaleko sare sozial erabilienak direlarik, hauetan sortuko ditugu kontuak, gazteengana urbiltzea helburu nagusia delarik. Hauek, informazio interesgarri hau irakurriaz, ikasiko lituzketen balioak planteatu eta boluntarioki gure webguneko galdetegi elart-errazean izen emango dutelakoan gaude. Gure enpresa, hau da, JJ enpresaren webgunea disenatzaile profesional batek egingo du, eta horrela, begiarentzat erakargarria den zerbait sorturik, ikusleen jakin-mina piztuko dugulakoan gaude.

Lehen esan bezala, sare sozialetako kontu hauen bitartez, enpresari buruzko informazioa emateaz gain, hainbat balore transmititzea ere gustatuko litzaiguke. Horrela, gaur egungo gosete situazioaz jakinaraztea gustatuko litzaiguke; hau ez dela Afrikako hiri txiroetan bakarrik gertatzen, Donostian bertan ere gertatzen dela. Izan ere, azken honetaz jendea oso konzientziatua ez dagoela dirudenez, hau aldatzea gustatuko litzaiguke: hainbat bideo, elkarrizketa edo “post”-en bidez. Elkarrizketa hauek, ahalik eta informalenak egitea gustatuko litzaiguke; izan ere, hauek dira gehien laguntzen dutenak empatikoagoak bihurtzen. Horrez gain, hainbat elkarerekin kontaktuan jarriko gara, beraiek egunerokoan duten esperientzia azaltzeko, eta beraien laguntzaz ikastoletako gazteak animatzeko.

Hau gutxi balitz ere, kartelak ere ipiniko ditugu hirian zehar eta iragarkiak sortzea da gure ideia; horrela, ahalik eta jende gehiengoarengana iritsiko gara: gazteak, helduak eta haurrak. Gazteak gure nitxo nagusia izango diren arren, helduen laguntza ere ez da gaizki etorriko eta enpresetako jantokietako janaria ere gordetzen saiatuko gara aurrerago.

Bigarren galderari erantzunez, kanal errentagarriena aipatutako lehenengoa izango da; izan ere, kostu gutxien izango dituen da sare sozialetan kontu ezberdinak sortzea eta horrez gain, ineteresatzen zaigun jende gehiengoarengana iritsi gaiztezke. Horrela, eraginkorrena ere bihurtzen da, kartelak eta iragarkiak oso interesgarriak eta lagungarriak diren arren, honek hainbat kostu darkarzkilako eta sare sozialetan kontu bat egiteak berriz, ez. Azken hau, musu-truk egin daiteke.